

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko urriaren 12a

Egunkaria

Gehigarri honetan




Baztan • Bailarako zenbait nekazarik diote putreek bizirik dauden animaliei eraso dietela

Yamaguchin dantzari • Lizarrako lau dantzarik hilabete eman dute Japonian, hangoei hemengo dantzak irakasten

Roldan Jimenorekin hizketan

Bospasei urteren
buruan, Roldan
Jimeno
Aranguren
historialari
gazteak
doktoretza tesia
bukatu du.
Azkenean. Asko
laburbilduz,
Nafarroan Erdi
Aroan gurtzen
zituzten santuen
arrastoa aztertu
du Roldanek.
Santuen moda
kontua zela
ondorioztatu du.
Eta santu
apokrifoak

inguruan bere aitak lehenago erran zuena berretsi du,
San Fermin ez zela inolaz ere existitu, alegia, eta San
Saturnino ez zela inoiz izan Iruñean. Tesiaren
karietara solasaldi luzea izan dugu Roldanekin, tesiaz,
Jose Maria Jimeno Jurio aitaren inguruan, Historiaz...



• MIKEL SAIZ

Viana •

Oscarra ikastolari

Erentzun ikastolaren 'Cesar Borgia' filmak
lehen saria jaso du Gaztebideon

**Apiril aldean erreportaia atera zuen XINGOLA gehigarriak,
Erentzun ikastolako filmaren inguruan. 'Oscarrik gabeko izarrak'
izenburua paratu zioten erreportariari. Bada, gaztetxo horiek
lortu dute bere Oscarra.**

IRAGAN LARUNBATEAN BANATU zituzten Gasteizko Gaztebideon jaialdiko sariak. *Cesar Borgia* filmak bi sari eraman zituen: pelikula onena eta janzkera onena.

Mikel Fernandez irakaslea da Erentzun ikastolan, eta filmean zuzendari artistikoa izan zen. Gidoia euskaratu zuen, eta haurrek *nor-nork* eta antzekoak ongi egiten ote zituzten kontrolatzen zuen. Fernandezek adierazi duenez, ez da lehenengo aldia Erentzun ikastolak Gaztebideon parte hartzen duela. 'Ikastolan hiru film labur egin ditugu, hirurak gai historikoen ingurukoak', erran du. 'Lehenengoarekin film dibertigarrienaren saria jaso genuen, eta bigarrenarekin, janzkera eta giroa onena'. Eta hirugarrenarekin, beste bi sari gehiago.

Gaztebideo jaialdia 21 urte beheitiko egile amateurrendako da. *Cesar Borgia* filmak onena izan zen aurkeztu zituzten 41 lanen artean. Fernandezek hitzetan, 'pelikula onak' zeuden jaialdian. 'Ez nituen pelikula guztiak ikusi. Baina gidoiaren aldetik, baten bat oso aberatsa ikusi nuen. Batez ere, gidoirik hoberena irabazi zuena. Irudien kalitateari dagokionez, gurea zen hoberena, formatu digitalean egin bainuen. Kamera digitala erabili genuen, eta muntaia ordena-



Cesar Borgia filmak laburrak pelikula eta janzkera onenaren sariak lortu ditu.
• ERENTZUN IKASTOLA

gailuz egin genuen. Hori nabaritzen da'.

Epaimahaikoek erran zuten nahiko garbi ikusi zutela Vianakoena zela pelikula irabazlea. 'Oso borobila zela komentatu zuten. Denetarik pixka bat zeukala. Gidoia ez zegoela batere gaizki. Irudia oso ona zela. Eta haurrek ondo egiten zutela, protagonistek batez ere, ttikien nabaritzen baitaie ttikiak direla'.

Erentzun ikastolan Lehen Hezkuntzako ikasleekin egiten dituzte bideoak, 6 eta 12 urte bitarteko haurrekin. 'Ez dugu urtero film bat egiten', dio Fernandezek. 'Izugarri prozesu luzea da. Bizpahiru urtetan behin egiten dugu, animo eta aukeren arabera'.

Vianakoen film saritu berriak Cesar Borgia bizitzako azken uneak jasotzen ditu, eta 25 minutuko iraupena du. Proiektua 1999. urtean sortu zen, Vianako eta inguruko historia haurrei hurbiltzeko helburuarekin. Cesar Borgia aukeratu zuten, Vianako herrian izan zuen garrantziagatik. Gidoia Felix Carriñano historialari vianarrak egin zuen.

→ Asier Azpilikueta

Leitza-Goizueta

Euskararen
erabileraren kale
neurketa

Leitza eta Goizuetako kaleetan zenbat euskara eta zenbat gaztelania entzuten den jakiteko, herriotako Euskara Zerbitzuak kale neurketa bat eginen du heldu diren asteetan. Bi neurtzaile ariko dira. Bi orduko hiru neurketa eginen dituzte. Astegunetan, bi orduko saioa eginen dute, eta aste bukaeran bi saio; bi orduz eguerdian eta beste bi orduz iluntzean.

Bertako euskara teknikari David Anautek adierazitakoaren arabera, «herri bakoitzean ibilbide zehatz bat prestatzen da, eta neurtzaileek horretara mugatu behar dute. Normalean, herri osoa zeharkatzeko bi ordu besterik ez dira behar izaten. Asteburuetan, eguerdian eta iluntzean ateratzen da neurtzaileak, ordu horretan ibiltzen baita jende gehien».

Metodologiari dagokionez, neurtzaileak fitxa batekin ateratzen dira kalera, eta bertan adina, sexua eta hizkuntzari buruzko datuak apuntatzen dituzte.

«Aurreko urteetako emaitzek oso herri euskaldunak direla erakusten digute, baina gaztelaniak ere sarbidea badauka, Leitza-Goizuetako kasuan batez ere, eta gazte nahiz helduen adin-taldeetan bereziki», esan du Anautek.

Neurtzaileak Leitza-Goizuetako izaten dira, eta orain arte lana musu truk egin izan badute ere, aurreko euskara zerbitzuak 60.000 pezetako aurrekontua dauka. Honetaz gain, SEI elkarteak diru laguntza bat emanen diote, Euskal Herriko neurketa bat egiteko asmoa baitute.

→ Estibalitz Ortega

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Kabul, New York, Corella

Dorre Bikiak hauts bihurtu zirenean mundua lasaitu zuen gure jauntxoak. «Laguntza igozko du Nafarroako Gobernua». Etengabe errepikatzen ziren filmetako hondamendi irudiei so, neroni ere baretu ninduten Corellakoaren hitzek, telebista aurreko ezohiko tumbing saio horretan. Zainzuri latak eta piper beteak irudikatu nituen New Yorkeko gurutze gorriko kargamentuan, ardo gorria plastikozko garrafa handietan, Opuseko apaiz gurutzadun karabana biktimen sufrimendu lazgarri hura aintzeko.

Ondoren jakin nuen aireportuetan ere neurriak hartzen hasiak zirela, eta, jarraian, Guardia Zibileko agente gehiago ikusi zituzten lanean Noingo aireportuan. Washingtonen segurtasuna hirukoiztu dutela? Noainen ere antzera: bi agenteren postuan, sei.

Foru ekimenez irri egiteko paradarik ez genuen izan; aurki harritu gintuen Corellako buruak, atxiloten bitartez: talibanak, etxean. Luzea da justiziaren besoa globalizatu-tako Nafarroa honetan. Zuhur jokatu zuten inteligentzia zerbitzuak; txerriak saltzen ez zuen harategia musulmana omen zen eta —horratx!— harakina, islamikoa (ustezko delitugilea, beraz). Baina nork asma zezakeen Bin Landenek berak Cascanten ezarria zuela zelula bat, soroak lantzen? Auskalo, agian garrafatan bidalitako ardoaren mahatsa biltzen ibilitakoak. Zoratzekoa. Kabul, New York, Cascante... Hiru erreferente, hiru protagonista: Bin Landen, Bush eta Sanz laguntzeko prest.

Hasi da gerra. Hain zuzen, irailaren 12an bertan behera gelditu ziren Europako futbol partiduak herenegun jokatu

zituzten, Kabul ilunpetan misilen euripean hauts bihurtzen zen bitartean. Oraingoan, berriz, ez dugu ardorik ez eta piper beterik iragarri. Baliteke misila gainera botatzen duen abioli horietariko batek zainzuri lata humanitarioren bat jaurtitzea. Erruki, jauna. Talibanen artera joatea baino, badaezpada ere, Opuseko integristen karabanak ere hobe du etxean gelditzea.

Antzekoak dira pilotuak; beheko biktimak ez, ordea. Gerra santu honetarako prestu egon daitezkeen landatutako marihuana horren azkar antzematen duten foru polizi basozaindiak ere, Corellako deiaren zain. Agian, hori da New Yorketik Pentagonoak eskatuko digun laguntza, Kabul aldean Bin Landen habizuloa aurkitu ahal izateko. Jota eta zapigorriak ere aliatuen saltsa horietan nahastea da kontua.


Baztan • Putreendako bazkaleku gehiago bailaran

BAZTANEN ITXUSIKO HAITZAK deritzon mendian ehunka putre bizi dira. Animalia hauen kopurua etengabe handitzen ari da eta aunitzetan Europako bertze herrialdetara eraman izan dituzte, eskualde horiek birpopulatzeko. Gorramendi mendia Haitzetatik hurbil dago eta, aspaldi, han putreendako bazkalekua egin zen. Arazoa *behi eroen* gaitzarekin iritsi zen, Gobernuak behi hilak bazkalekuetara eramatea debekatu baitzuen, eta putreek zuten janaria izugarri jaitsi zen.

Baztango nekazari batzuen arabera, bizirik zeuden animaliei erasotzen ikusi dituzte putreak. «Behi bat belaian genuen eta erditzen hasi zen. Konturatu orduko, hainbat putre zeuden behiaren inguruan, plazenta jan nahirik», erran du Bego-a Sanzberro Almandozko abeltzainak. Arizkongo Xotero Irigoien abeltzainak dienez, «lagun batzuek bazuten behi bat belaian ezin mugituz zebilena. Traktorearen bila joan ziren jabeak eta itzuli orduko 200 putrek inguratua zuten behia eta ordurako izugarrizko zuloa egina zioten izterrean».

Putreak gose dira

Arazoa larria da, putreek ez baitute zer jan. Abeltzainek ardiak eta zerriak mendian botatzen dituzte, baina hori ez da nahikoa. Baztanen bazkaleku bakarra dago; erran bezala, Gorramendin, Otsondoko mendetik hurbil. Beraz, Almandoz edo inguruko herrietako abeltzainek 30 kilometro baino gehiago egin



Gorramendiko bazkalekua, debekuaren aitzinetik eginiko irudi batean. • TTPI-TTAPA

Nekazariak salatu dute putreek bizirik dauden animaliei eraso dietela

Nafarroako Gobernuak berriki jakinarazi dio Baztango Udalari putreendako bazkaleku gehiago egin nahi dituela bailaran, baita Nafarroako bertze udalerrietan ere.

Behi eroen gaitza agertu zenetik debekatu zen bazkaleku hauetara behiak eramatea; beraz, putreak orain gose dira eta bizirik dauden animaliei ere eraso diete.

beharko lituzkete bazkalekuraino animalia hilak eramateko, eta horrek gastu handia dakar. «Abeltzain aunitzek mendian, etxetik hurbil botatzen ditugu animalia hilak. Denbora gutti barru ez da arrastorik ere gelditzen», kontatu du izena eman nahi ez duen nekazari batek. «Ezin gara Gorramendiraino joan, ez dugu astirik ezta dirurik ere. Nahiko zorte txarra da animalia hiltzea bertze gastuetan sartzeko».

Nafarroako Gobernua, bitartean, bigarren bazkalekua egiten hasi da, aurretik zegoenetik hurbil. Denetara, erkidego osoan 21 milioi pezeta jarriko ditu (milioi bat libera), Amezkoa, Sakana, Aragoi, Zaraitzu eta Baztango bailaretan 25 bazkaleku egiteko.

Orain arte zegoen bazkalekuaren arazorik handiena hezur

pilaketa zen. Udalari askotan eskatu bazaio ere, inor ez da hondakinez (hezurrez batez ere) arduratzen. Horrek pilaketa ekarri du eta ingurua ezagutzen ez duten turistek susto bat baino gehiago hartu dute buruhezurak eta bertze arrastoak ikustean.

Gobernuaren baimenaren zain

Sarraskijaleen ugariak putre edo sai arreak dira Baztanen. Nafarroan, denetara, 5.000 zenbati dituzte (munduko dentsitate handiena). Hauetako bakoitzak egunero 500 gramo haragi behar ditu ongi bizitzeko. Putre arreek hildako animalien %97,5 jaten dituzte eta gainontzekoa beste sarraskijaleek.

Irailaren 5ean Nafarroako Gobernuak iragarri zuen dekretu bat onartu nahi zuela berriz ere behi eta ardi hilak putreen bazkalekuetara eraman ahal izateko. Nekazari eta abeltzainek, aldiz, ez dute horren berririk eta gustatuko litzaieke dekretua lehenbailen onartzea. Zenbait ikerketaren arabera, putreek *behi eroen* bat jango balute, zaila izanen litzateke kutsatzea eta gaixotasuna transmititzea, putreak baitira katean azkenekoak eta ez baitago putreak jaten dituen harriparirik. Beraz, Arriskuko Material Espezifikoko (AME) arazorik gabe bazkalekuetara eramaten ahalko lirateke.

→ Rakel Goñi



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Informazioaren garrantziaz

Baiapordios! Batasunekoek berriki jakin dute Aralar ildokoek Ezker Abertzalearen hondamendia dutela helburu! Kagoenkixto! Ezin zaitez inorekin fida! Ez al dira, bada bada, Aralarreko hauek duela lau egun, Batasuna prozesua abian zelarik, etxearen barren-barreneraino sartu ziren berberak? Batasunaren jaiotzan sukalderaino sartu eta baztar guztietan parte hartu zuten haiek? Ez al zeuden Otegi eta besteak Aralarrekoekin bidea elkarrekin egiteko eta talde politiko berberan parte hartzeko prest? Dedio! Zer Informazio-Talde kaxkarra daukaten HBn! Ez al dituzte batzarretara sartzeko den jendearen ideiak aldeztu aurretik katxeatzen? Zeren, aizue!, ez da gertatu den lehenengo aldia ere! Begira Milagros Rubioren bestela. Ezin dut asmatu zer nolako txosten on eta abegikorra egin zuten HBko Informazio-Taldekoek Batzarreko jendea buruz, baina poltronista hutsa den jendilajea ez igartzea ere!... eta ez hori bakarririk!... poltronistei poltronak eskaintzea ere! Gero kendu egiten dizkietela! Noski! Ez diete kenduko bada! Esan nahi dut hau ez dela normala. Jendea buruz txostenak eskatu behar direla, aizue, eta nahiz eta Urralburuk egunero-egunero Eusko Gudariak egoitzaren aurrean kantatu, hor egon behar dela baten bat esango duena: «Oso ongi abesten du baina poltronista hutsa da, ez ireki». Esan nahi dut HBko Informazio Taldekoek dimititu, jubilatu edo zuzenean kaleratu beharko lituzketela, susmoa ez izateagatik, bai horixe! Imajina ezazue Ezker Abertzalearen hondamendia helburu duen edozein beste talde batek Nésate baterako, bat jartzeagatik, botepronton: Guardia Zibilañ, imajina ezazue, diot, Informazio Taldearen oniritziarekin sartzeko direla Batasunaren baztar guztietara eta handik hilabete batzuetara, zas!, Batasunetik badoazela eta hortik aurrera Ezker Abertzalearen hondamendiaren alde egingo dutela lan esaten dutela. «Dedio! Hau gola sartu dietena, ezta?» (pentsatuko genuke). Esan nahi dut Ezker Abertzalearen hondamendia bilatzen dutenak ongi bereizi behar direla, dedio!, bestela zure jakituria politikoa bera ere kolokan gera liteke eta jendearen aurrean guztiz iragarri gelditu, pailazo txar bat legez ●

Seigarren 'behi eroa'

Nafarroako Gobernuak aste honetan jakinarazi du *behi eroen* gaitzak jotako seigarrena atzeman dela joan den astean, mendialdeko base-ri batean. Zaragozako laborategiak eginen dituen analisisen zain daude kasua baieztatzeko. Behiak laurogeita bat hilabete zituen, eta erditzen ari zela hil zen. Laginak hartu eta berehala, animalia gorpua desegin zuten. Eginiko lehen analisisan atzeman zituzten behi entzefalopatia espongi-forme gaixotasunaren arrastoak, eta bigarren analisiak ere baieztatu egin zuen diagnosis.

Nuria Iturriagagoitia Nafarroako Gobernuko eledunak astelehenan adierazi zuenez, Abeltzaintza Departamentuko albaitaritzak zerbitzuek abereak mugitzea debekatu diote abeltzainari. Orain, baseritarrak erabaki beharko du abere talde osoa desegin edo parte bat bakarrik. Azken kasu horrek behiak bazkalekuetara eramatea atzeratuko du, seguruenik. Putreak bitartean gose dira, eta abeltzainen artalde eta gainontzeko animaliak, berriz, arriskuan.

Roldan Jimeno Aranguren

HISTORIALARIA

«Santuen moda kontua zen Erdi Aroan»

ERDI AROKO HISTORIA IKERTZEAK ESKATzen duen metodologia erabili du Roldan Jimenok. Nafarroako makina bat artxibotan, Amiensekoan eta Vatikanokoan ere ibili da informazio bila. Tesi mardula ateratu zaio, 750 orrialdekoa.

■ **Fundamentos de la piedad popular: advocaciones y culto a los santos en la Navarra primordial (Herri jaieraren hastapenak: adokazioak eta santuen gurtza jatorrizko Nafarroan).**

Halako izenburu pedanteak izaten dituzte doktore tesiek, kutsu akademikoa emateko edo.

■ **Zeren inguruan hitz egin duzu?**

Kristautasunaren hastapenak aztertu ditut santuen gurtzaren bidez. Holako azterketarik ez zen oraino egin hemen. Santutegiak, ermitak, ospitaleak, parrokiak... gurtza toki horietan ikertu eta ikusi dut, azken batean, santuen moda kontua zela. Kristautasuna herrietan ezarri zenean, elizak eraiki zirenean, santu baten edo bestearen gurtza egiten zuten. Eta, salbuespenak salbuespen, esan daiteke orokorrean santu bakoitzari momentu historiko zehatz bat dago kiola. Adibidez, argi eta garbi azaltzen zaigu San Migel VIII. mendean sartzen den santua dela. Era berean, azterketa honetan ikusten ahal da zein santu diren aprokifoa.

■ **Aprokifoa?**

Bai, existitu ez ziren santuak. 70 urtetan, aita eta Jose Goñi Gaztanbide historialariek, baita historialari frantsesek ere, ikusi zuten San Ferminen historiak ez zuela batere funts historikorik. San Fermin eta San Saturninoren bide hagiografikoa jarraituta, ikusten ahal da haien kondaira 1186 urtean etorri zitzaigula Amiensetik. Gero, kondaira hori goitik behera aldatu zuten Nafarroan. Baina, santuen modak kontuan izanik, San Fermin Iruñeko lehen apezpikua izan balitz, bere gurtza hasieratik egonen zen Nafarroan, eta orain San Fermin izanen genuke ia Nafarroako herri guzietako patroia. Baina Iruñean San Fermi eskaini zioten lehenbiziko eliza Arrosadikoa izan zen, frankismo garaikoa.

■ **Hau da...**

XII. mendea arte San Fermin ez zen Nafarroan inolaz ere existitu. Are gehiago, pertsona bezala ere ez zen existitu. Nafarroako hagiografian beste hainbat kasu ditugu: San Gregorio Ostiakoa, Santa Felizia eta San Gillen apokrifoa dira, ez ziren existitu. San Birila (Leire) eta San Beremundo (Iratxe), existitu ziren bai, baina haien kondairak asmatuak dira.



Roldan Jimeno Aranguren historialariak doktore tesia bukatu du. «Azkenean», pentsatuko du baten batek. Jose Maria Jimeno Jurio historialari handiaren semeak bospasei urte eman ditu santuen gurtzaren inguruko tesia osatzen. Baina ez da santujalea. Aitzitik, existitu ez ziren santuen inguruan botatakoak, batez ere San Ferminen gainean erranikoak, sinestun bat baino gehiago aztoratuko du. Roldanek, baina, «errespetu osoz» egin du bere lana.

■ **Dena dela, erran duzunez, kontu hau aspaldikoa da. Hala ere, ez da askorik zabaldu.**

Ez. Elizari ez zaio interesatzen. Ulergarria da, kontu honek sekulako fede gatazka baitakar. Gogoan dut tesiarekin hasi nintzenean solasaldi argigarria izan nuela Filologiako neskato batekin. Fede handikoa zen bera. Nire tesia zeren inguruko zen galdetu zidan eta, gaia erakargarria egiteko, santu apokrifoen botatua nion. Neskatoa, orduan, erdi negarrez, lepoan zuen San Fermin iruditxo eskuetan har-

tu eta zera galdetu zuen: «Orduan, zer gertatzen da gurtzen duen honekin?». Gauza hauekin kontuz ibili behar da.

■ **Zure tesiaren zati garrantzitsua da hau?**

Kapitulu bakarra eskaini diot San Fermini, 25 orrialde besterik ez.

■ **Zer demonstratu nahi izan duzu gainerako 725 orrialdeetan?**

Iruñeko Elizbarrutia osatzen zuen Jatorrizko Nafarroan (Erdialdea guti gora-behera) kristautasuna nahiko goiz sartu zela, III. mendean edo; VI. menderako

herri garrantzitsuenetan kristautasuna erabat sartuta zegoela; eta XII. mende bitartean, Elizaren azpiegitura beste herri guzietara zabaldu zela. Tesia interesgarria da kristautasunaren hasierak ikuspegi berri batez aztertzeke, santuen gurtzaren bidez.

■ **Aita apaiza izanik; ikasketak San Fermin ikastolan eta Nafarroako Unibertsitatean; santuen inguruko tesia... Zer nolako sinismenak ditu Roldanek?**

Bitxia badirudi ere, sinismenena ez da ni gehien kezkatzen nauden gauza, nahiz eta, adibidez, Teologiako ikasgaiaren matrikula lortu nuen. Tiebasen alkate izan nintzenean, herriko apaizak, Luis Orozek, galdetu zidan ea zergatik gazteak ez ginen elizara joaten. Paso egiten dugula erran nion. Hori da nire barne jarrera. Baina, kanpora begira, kontuan izan behar da Nafarroan gaude-



soslaia

Roldan Jimeno Aranguren Iruñean jaio zen 1973ko ekainaren 3an. Jose Maria eta Elenaren seme bakarra da. Tiebas herriko alkatea izana da.

Ikasketak San Fermin ikastolan, Iturruma institutuan, EHU eta Nafarroako Unibertsitatean egin ditu. Ez zuen unibertsitate horretan ikasketak egin nahi aitari, Jose Maria Jimeno Jurio, sartzea ukatu egin zituelako. «Historialaria izateko profila ez zuela esan zioten». Historia doktorea da.

Tesia egin bitartean Nafarroako Unibertsitateko irakasle izan da. Tesia bukatu eta «bota» egin dute. Akaso unibertsitateko ez zitzaizten gehiegi gustatu Donostian «Euskal historia eta kultura» eman zuenean ikasleek euskaraz emateko eskatu izana. Bere tesian euskarak toki garrantzitsua du. «Ez dut uste tesia euskara jakin gabe egin zitekeenik».

RIEV aldizkariako koordinatzailea da eta Nafar Ateneoko Euskaraz sailako arduradun. Tesia bukatuta, orain zuzenbidearen historiatik bideratuko ditu bere ikerketak.

la, eta hemen erlijioak tradizio eta indar handia duela. Eta nik errespetu izugarri handia diet erlijio kontuei eta halako sinismenak dituen jendeari. Erlijioa, duela guti arte, Nafarroako, Euskal Herriko motorra izan da. Orain sekularizazio prozesu batean gaude gizarteak, eta ni prozesu horren baitan nago. Bestalde, dudarik gabe, erlijioa oso ikerketa gai interesgarria da.

■ **Zenbateraino markatu du zure bidea Jose Maria Jimeno Jurioaren seme izateak?**

Historia ikasketak egitea, noski, aitaren eragina izan da. Eta nire tesian asko eragin du, eta oso harro nago horregatik. Tesiaren bibliografian aita da aipatuena. Aitak tesian zuzenketak sartu dizkit. Aitak jorratu du horren baliagarria izan zaidan toponomastika. Eta aita izan zen, batez ere, San Ferminen inguruko gauza hauek kili-kolo jarri zituen.

■ **Zer harreman duzue bi historialariok?**

Aita beti ikusi izan dut etxean Historiarekin disfrutatzen. Eta orain elkarren osagari gara. Bere material argitaratu gabea

«Kezkatzekoa da euskal kulturaren kontrakoak antolatzen ikustea»

ROLDAN JIMENO EUSKO Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariaren koordinatzaile da. Kezkatua dago euskararen kontrako iritzi-emaeak antolatzen ari direlako.

■ **NAFARKARIAN bertan errana duzu Nafarroan egun ez dela euskararen kontrako erasoei aurre eginen dion intelektual talderik.**

Euskal intelektual asko daude, oso onak, gainera; eta euskarak ez du intelektualki egungoa baino egoera hobea bizi izan. Baina erasoaren aurrean ez da erantzun bateratu gogorrik ematen. Azken urte honetan, batetik, euskal munduan mugimendua izan da, halako elkarte prozesu bat. Baina oraindik ez dago gutxiengoaren akordio bat gauzak aurrera ateratzeko, ez dago politika bateraturik. Eta, bestetik, nabarista sutsuak ere mugitu egin dira. Lehen bakarka esaten zutena orain taldeka esaten dute. Lehen ekintzan sartzen ez ziren pertsona batzuek orain, inolako lotsa eta errespeturik gabe, sekulako astakeriak esaten dituzte. Horrek belurtzen nau. Euskararen kontrako eraso mediatiko gogorak izaten dira. Baina ez dut erantzun egokirik ikusten. Kontraeraso gogorra beharko litzateke egin gure aldetik. Eraso intelektual, noski.

■ **Eta hara non sortu zaigun Sociedad de Estudios Navarros izenekoa. Ez omen da Eusko Ikaskuntzaren kontra jaio. RIEV aldizkariako koordinatzaile bezala, zer itxu-**

ra hartzen diozu elkarte berri honi?

Del Burgok kontrako esan arren, argi eta garbi dago Eusko Ikaskuntzaren kontrako doala. Diru laguntza kentzeko ziurrenik. Baina diruarena ez da garrantzitsua. Beste gauza bat lortu nahi du Del Burgok. Eusko Ikaskuntza oso erakunde zabala da. Iker-tzaile askok kolaboratzen dute hemen. Adibidez, Nafarroako Unibertsitateko Erdi

Aroko saileko hainbat iker-tzailek eta irakasleak *Fuentes Documentales Medievales del Pais Vasco* bilduman argitaratzen dute. Eta ez dira euskaltzaleak, eta gutxiago abertzaleak. Ikusten dute Baskonia errealtate kulturala dela, baina ez dira horretan askorik sartzen. Azken batean, erakunde zientifikoa da Eusko Ikaskuntza. Bada, Del Burgok jende hori bereganatu nahi du. Edo, gutienez, jende hori

lotsarazi nahi du, Eusko Ikaskuntzan kolaboratzeagatik. Eta, horretarako, Eusko Ikaskuntza politikoki markatu nahi dute, betiko silogismo sinplistik eginez. Aunamendi entziklopediaren aferak hori bilatzen zuen. Eta harritzen nau Euskaltzaindiarekin oraindik saiatu ez izana.

■ **Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia Hegoaldeko lau diputazioek sortu zituzten. Akaso horrek min handiegia egiten die.**

Bai, noski. Nafarroan lehen, muturreko eskuindarrak kenduta, ez zegoen euskaraz eta euskal kulturaren kontrako jarrera oldarkorrik, orain ez bezala. Sekulako atzerapausoa izan da. Geroz eta antolatutagoak daude, eta hori kezkatzekoa da.

■ **Eta mehatxua egin dute. Otsailean jardunaldiak eginen dituzte, Espainiako historian baskoek eta nafarrek egin dituztenen gainekoak.**

Oso ildo maltzurra segitzen dute. Historia politikoa hartzen dute ardatz, eta hori eginez gero, oso gutitan agertzen zaizkigu lau probintziak batera; 1200. urtetik erabat bereizirik daude politikoki. Baina Erdi Aroan Espainiako historiari hitz egitea Euskal Herrikoaz hitz egitea bezain faltsua da, ez baitira politikoki existitzen. Eta Historia ez da historia politikoa bakarrik. Historia soziala eta kulturala ere hori dira. Euskaldunok batu gaituena ez da historia politikoa, kulturala baizik. Eta hori da justu haiek isilarazten dutena.



MIKEL SAIZ

erabili ahal izan dut. Aitak jakinduria eskaintzen dit, eta nik historia egiteko modu berria, Historiaren azken 25 urteetan izugarriko aldaketak izan baitira. Informatizazioa alde batera utzita, historiografia erabat aldatu da, historia soziala sortu da, pentsamoldeen historia, Nafarroako Historiaren eza-gutza bera, azken urteetan, tesiak eta ikerketak direla eta, asko handitu da.

■ **Historiaren eza-gutza handitu dela**

diozu. Nik ez dut uste ezagutza hori askorik zabaldu denik. Eta zabaldu denean ere, gauza beraren inguruko Historia kontrajarriak daude. Zer-gatik?

■ **«Historia ez da zientzia zehatza. Iritzi politiko jakin batekoek iturri batzuk hartu eta beren ondorioak aterako dituzte; eta kontrakoek, kontrakoak»**

Historia ez da zientzia zehatza. Historiaren sintesiak egiterakoan oso jarrera kontrajarriak aurki ditzakegu, historia gaiek zerikusi handia dutelako egungo politikarekin. Honela, iritzi politiko jakin batekoek iturri batzuk hartu eta beren esparrura era-

mango dituzte, beren ondorioak ateratzeko. Eta beste aldekoek kontrakoak. Nafarroako konkista, esaterako, konkista izan zela onarturik dago. Baina batzuek diote konkista Nafarroarako onargarria izan zela, eta besteek diote kaltegarria izan zela.

■ **Zertarako balio du historia eza-gutzeak?**

Historiarik gabe ezin dugu deus berri-rik eraiki. Euskal Herriari eta, batez ere, Nafarroari dagokionez, ezinbestekoa da gure historia jakitea politikoei botatzen dituzten txorakeriak ez irensteko.

→ Asier Azpillikueta

Hirugarren begia

Izarra! Hogeita batgarren mendeko Hezkuntza Sistemak gero eta gehiago urruntzen gaitu Berpizkundeko iza-kiengandik. Unibertsitatea gero eta atomizatuagorik dago. Gero eta ikasketa gehiago daude, gero eta espezializatuagoak. Hala eta guztiz ere, nik dakidala bederen, analista ikasketak oraindik ezin dira topatu gure unibertsitateen eskaintza askotarikoaren —gai zerrendez ari naiz, ez, jakina, hizkuntzez— baitan. Hartara, ez dakit nola bilakatzen zaren analista. Aspaldidanik, nago supituki ipurtzuloan hirugarren begia hazita egiaren argia ikusten duzula. Horregatik guztiagatik, **Peio Ospitalek** eta **Pantxoa Carrerek** abestuko luketen moduan, uste dut analista berri bat «piztutzero» doala Euskal Herriko zeru gainean: neu.

Harra! Ez dut batere gogorik **Joseba Santamariaren** lehiakide izateko. Ongi nago nagoen bezala: Unzun, etxeko tresna elektrikoak saltzen —lan ordu gutxi, 14 paga, salmenten arabera pizgarriak...—. Baina metamorfosi kafkiarrak —tximeleta saltzaile izatetik har analista izatera— saihestezina dirudi, azken egunotako gertakariak aintzat hartuz.

A! Samuelek —Monte Carloko zerbitzariak— maiz esan izan dit ez edateko

horrenbeste kuba-libre, edari gozoegia dela, odoluzkiak eragiten dituela. Nik beti erantzun izan diot horrelako osasun aholkuak emanez **Ramon Sanchez Ocaña** edota **Koldo Martinez** ematen duela, nire uzkiak inolako arazorik ez duela. Beti, joan den astelehena arte. Joan den astelehenean, munduan daramatzadan 44 urteetan lehendabizikoz, ipurtzuloa boteprotoan Uxueko almendra garrapinatu sorta bilakatu zitzaidan.

! Erraiak libratzea ohi baino lan neke-

zagoa izanen zela eta, igande arratsaldean Monte Carloko komune-rantz abiatu nintzelarik, egunkari bat hartu nuen barratik. *Gara* zen. Egin beharrekoak kontu handiz egiten nituen bitartean, periodikoa atzekoz aurrera irakurtzen hasi nintzen. Kiroletan, Osasunak bost jardunaldi daramatzala partidari galdu gabe irakurri nuen. Aho bete hortz geratu nintzen. Aurrera eginez, editorialaren eta **Tasio** marrazkilariaren tiraren orrialdera heldu nintzen. Benetan harrituta, txundituta, zur eta lur geratu nintzen. Bazuen grazia. Afganistango mapa eta haren inguruan asmatu herriak:

Akinoestean, Tanpokoestean, Igualetan... Tasio, munduko marrazkilari zozoenaren txiste batek badu grazia. Eta Osasunak bost jardunaldi daramatzala partidari galdu gabe. Supituki hirugarren begiaren laguntzaz egiaren argia ikusi nuen: «Muturreko kristauen eta musulmandarren arteko gerra, Tasio graziaz, Osasuna irabazten... Munduaren amaieraren aitzinean gaude», arrazoitu nuen neure golkorako, analistarik trebeenen moduan. Harrezkeroztik izututa nabil, analista bilakatu naizelakoan. Bai, badakit. Zutabe eskatologikoa atera zait, eta zentzu handirik gabekoa. Sentitzen dut. Analistak horrelakoak gara.



Osama Bin Laden, Tasio irudigilearen antza duen muturreko islamista.



Peio Ospital eta Pantxoa Carrere.



panpilonia zirkus

Beti arte, Kilkir

Garai batean, Kanariar Uharteetatik Iruñera ekarritako platano berdeak Compañia kalean gordetzen zituzten. Geroago, binilo beltzak jaun eta jabe bihurtu ziren Alde Zaharreko etxabe horretan. Duela hamasei urte, bi lagun artean *Kilkir diskak* denda zabaldu zuten. *Napo* bidean gelditu da. Blankak aurrera jarraitu du.

Hasieran arrakasta eta oihartzun itzela lortu zuen. «Antzeko denda gutxi zegoen Iruñean eta, batez ere, musika alternatiboaren erreferentzia bihurtu ginen. 80ko hamarkadaren hasiera alternatibaren sasoia izan zen gurean. Giro berezia zegoen bazter guztietan».

Irrati libre asko sortu ziren: Eguzki Irratia, Radio Paraiso, CRDI, Zarata, Eate, Cocodrilo... Okupazioaren aldeko

mugimendua ere orduantxe piztu zen. *Katakrak* taldeak bultzaturik, hutsik eta abandonaturik zeuden zenbait etxe eta lokaletan sartu ziren gazteak. Taberna gehiago zabaldu zituzten Alde Zaharrean. Kontzertu asko egiten zen, eta euskal rock erradikalaren itzalpean makina bat talde sortu zen.

«Hiru irizpide nagusi izan ditugu gure produktua aukeratzeko tenorean: musika berria eta abangoardista gertutik jarraitzea, zigilu independenteekin lan egitea eta Euskal Herriko taldeei toki berezia eskaintzea».

Hemengo taldeen diskoak eta atzerriko nobedadeak eskuratu nahi zituen orok ezinbestekoa zuen Curia karrikako aldapa igotzea.

The Clash, Madness, Zarama, Ramon-



Aurki isilduko da Compañia karrikako kilkerra.

cin (nola aldatzen diren gauzak, kamara-da), Belladona, UB40, Smiths, The Cure, RIP, Ramones, B52, Eskorbuto... eta beste hainbat binilok *Kilkir* dendako etiketa erantsirik dute oraindik iruindar askoren apalategietan.

«Aurrerago, biniloa bazterrean gelditu zen, eta haren lekukoa CDak hartu zuen. Ondorioz, salneurriek gora egin zuten. Dena den, azken urteotan Interneten erabiltzen diren *napster* eta antzeko pro-

MIKEL SAIZ

Pello Argiñarena

gramek eta diskoen *pirateoak* egin digu kalte gehien. Gainera, denda gehiago zabaldu dituzte inguruan, eta ezin gara lehian sartu zenbaitek eskaintzen dituzten prezioekin».

Giroa asko aldatu da, kalean ez dago hainbeste mugimendurik, eta *Kilkir* bazterrean gelditu

da. Baita fisikoki ere. «Bi urte dira kalea itxirik dagoela. Hasieran, Osasun Etxea eta orain, aparkalekua eraikitzen ari dira. Urrunegi gelditu gara».

Kilkerrak ez du kantatzeko asmorik, hemendik aurrera. Pertsiana jaitea erabaki dute. «Urriaren hirugarren aste arte prezio erdian salduko ditugu apalategietan gelditzen diren azken binilo, CD eta kaseteak».

Beti arte, *Kilkir*.

Yamaguchin dantzari

Lizarrako Larraiza dantza taldeko lau kidek hilabete oso bat eman dute Japonian bertako herritarrei hemengo dantzak irakasten

Irailaren hasieran abiatu ziren ekialdeko herrialdera eta hilabete osoa eman dute Ajisu herrixkan dantzari lanetan. Hasiera batean Japonia ez zen hagitz erakargarria, baina bertan denbora luzez egon ondoren eta herrialdea sakonean ezagutu ondoren, guztiz maiteminduta etorri dira herrialdearekin eta bertako biztanleekin.

ANA CARRETERO, INAKI FERNANDEZ, NEKANE MARCO eta GORKA GALDEANORI ez zitzairen sekula burutik pasa Japoniara joatea. Otsaila aldera dei bat jaso zuten dantzari trebe hauek eta ekialdeko herrialde honetara joateko gonbidapena jaso zuten. Hemengo dantzak japoniarrei erakustea eta irakastea zuten eginkizun bakarra. Berehala esan zuten baietz. Hilabetetan dantzak prestatzen egon ziren eta irailean abiatu ziren harat, Jose Luis Aznarez txistularia lagun zutela.

Iruñearekin senidetuta dagoen Yamaguchi hiritik ordubetera dagoen Ajisu herri txikian eman dute hilabetea, Japoniaren hegoaldean. Bertan, Expo erakusketa bat egin dute uda osoan zehar eta, oro har, Asiako herrialdeak izan dute egoitza nazioarteko erakusketan, bereziki China, Korea eta Japonia bera. Europako eskualde bakarra Nafarroa izan zen. Nafarroako eraikinean gure bizimoduak ageri zuten argazkiak zeuden, alor ezberdinetako irudiak. Halaber, hemengo artisauek egiten dituzten produktuak jarri zituzten erakusgai. Helburua, finean, japoniarrek osotasunean eta sarkotasunean ezagutzea Nafarroa. Eta hori erabatean gauzatu.



Lizarrako Larraiza euskal dantza taldea Japonian, Ajisu izeneko herrixkan japoniarrei euskal dantzak irakasten, bertan antolatu den Expo-ko ekitaldien barruan. ● EGUNKARIA

tzeko gure kulturaren adierazpen diren musika eta dantzak eraman zituzten Japoniaraino. Abuztuan Ortazar dantza taldea egon zen Ajisun, abuztuan Amaiur eta azkenik, iraileko hilabetearen zehar, Lizarrako Larraiza dantza taldeko lau ordezkariak.

«Ederki ikasi dute dantzatzeko»

Zazpi jausi, Esku-dantza, Olague eta Zapatain dantza izan dira hilabete osoan zehar behin eta berriro dantzatu behar izan dituzte, unibertsitarioak, eta euskal dantzak primeran ikasi dituztela aitortu digute Lizarrako dantzariak. «Ederki ikasi dute

«Oso erraz ikasten zuten. Guk pauso bat irakasten genien eta haiek goiz osoa ematen zuten entsaiatzeko ongi aterate arte. Oso langileak eta irmoak»

Bertakoen etxean bizitzen

Ajisun egon diren bitartean aterpe batean egon dira Lizarrako dantzariak eta txistularia. Goiz-goizean jaiki eta erakusketaraino hurbiltzen zituen autobusa zain zuten. Egunean bost dantza saio egiten zituzten. Tartean lasai egoteko aukera ere izan dute eta jai egun batzuk. Egun horietan bertako familiekin egon dira, elkar bizitzen. Gorka Galdeanoren kasuan oso familia bereziarekin egoteko parada izan zuen. Hain zuzen ere, azkeneko olinpiar jokoetan urrezko domina jaso zuen judo jokalararen etxean egon zen. Samurai tradizioko familia zen, aitona samurai trebea izan zen eta etxean bertan ikasleak jasotzen zituzte judoan trebatzeko. Oso esperientzia polita izan zela aitortu digu Gorkak.

dantzatzeko. Oso erraz ikasten zuten gainera. Guk pauso bat irakasten genien eta haiek goiz osoa ematen zuten entsaiatzeko ongi egin arte. Oso langileak eta irmoak dira» adierazi du Gorka Galdeanok. Japoniar ikasleekin elkar ulertzeko ingelesa piska bat eta batez ere mimika erabiltzen zutela kontatu digu Gorkak. «Ez da zaila izan elkar-ulertzea. Hizkuntzaren traba baze- goen ere, gorputzarekin ulertu dugu elkar».

Egunean hogeit hamar minutuko bost emanaldi egiten zituzten. Goizeko 10:30etan aurrenekoa eta arratsaldeko 17:00etan azkenekoa. Tartean ikusle ugari izan dute eta japoniarrek euskal dantzak oso gustokoak izan dituztela somatu ahal izan dute. «Ikuskizuna amaitzerakoan jendeari gurekin dantzatzeko gonbitea egiten genien eta denek nahi zuten dantzatu. Ez dira barrengarri gelditzeko beldur, ez dira lotsatiak eta irribarrez daude beti».

Meloia 3.000 pezetatan

Lizarrako dantzari trebe hauek ordu franko eman dituzte dantzatzeko, hala ere herrialdea ezagutzeko parada ere izan dute. Japoniarrek oso atseginak direla iritzi dute eta joan aurretik hainbat aurreritzi bazi- tuzten ere, orain poz-pozik etorri dira. «Jendea oso atsegin da eta erregeak bagina bezala tratatu gaituzte», adierazi du Gorkak. «Hasieran itxiak zirela uste genuen, barnerakoiak, baina ezta pentsatu ere, oso iriekiak dira. Hala ere, ez dute elkar ikutzen eta irribarre asko egiten badute ere, ez dute umorea guk bezala ulertzen. Txan- txetan ari zarela esan behar die- zu, bestela gaizki hartzen dute. Gu baino serioagoak dira».


Herrialdeari berari dagokio- nez «oso polita» da, dantzari hauek aburuz. «Berde-berdea da, herriak oso politak eta etxe guztiak berriak dira, kotxeak ere berriak. Gainera, dena garbi baino garbiagoa dago, bizi maila oso altua dutenaren seinale». Prezioak garestiak omen dira han, hiru melokotoik 300 peze- ta balio dute eta meloiak 3.000 pezeta (120 libera). Janariare- kin ere izan dute bitxikeririk eta sarritan hemengo janaria pre- statzen bazuten ere, shusia eta shushimia probatu egin dute eta txarra ez dagoela esan ere.

Esperientzia ahaztezina izan da. «Edozein momentuan itzul- tzeko prest gaude eta aukera izanez gero berriro ere itzuliko ginake».

→ Kristina Berasain



Japoneko Ajisu hirian ospatu den Expo erakusketaren panpinak.



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Kukuxumusukoendako iradokizuna

A ski ezagunak dira Kukuxumusuko kamiseta arrakastatsuak. Asmakuntza iruindar hau nonahi aurki daiteke egun, ez soilik kristo guztiak soinean bat eramaten duela, baizik eta Urmenetatarren lobby-a lau haitzetara hedatu delako. Euskal hiriburuetan zabaldu zituzten dendak, bai eta Katalunian eta Espainian ere. Eta, ze arrairo, ez da harritzekoa! Oso produkzio originalak dira eta.

Oso pasadizo polita gertatu zitzaizkidan behin Kukuxumusun nintzela, noski lagun batendako kamiseta erostekotan nintzela. Nire aurrean zegoen emakume edadetu batek, bilobari oparitan emateko akaso, kamiseta gris jakin batean erreparatu zuen.

«Eta zein duzu gustuko?» galdegin zion dendariak. «La del pajari», emakumeak ihardetsi. Gaixoak hontz polit bat baino ez zuen ikusten. Ez zuen zertzeladetan erreparatu, ordea; izan ere, gautxori hitzaren polisemiarekin jolastuz, hontzak lurrean zegoen errenkatxo zurixka eta susmagarria sudurreratzin ari zen.

Aitzitik, pertsonaia aunitz dituzten kamisetak ditut gogokoak. Sanferminetakoak, esaterako. Bertan zezenak, korrikalariak, guriak, San Fermin bera, Potxolak (jaketxe zaharrekoak, hain justu) eta abar ageri dira, zenbakitxo batez lagunduta. Azpiko partean zenbakiaren atzetik, Urmenetatarren sormena gutxietsi gabe, iradokizun tiki bat eginen nieke gustura. Nafarroaren zapora eta kolore guztiak islatzen dituen. Izan ere, nahiz eta topikoa den, denetarik dugu hemen: klima guztiak, folklore aberatsa, ideologia guztiak. Esaterako, abertzaleok —zorionekoak gu— bost alderdi ditugu aurretik: Aralar, Batasuna, Batzarre, EA eta EAJ (alfabetikoki jarrita, kontuz!). Eta, noski, gainerakoak: IU-EB, CDN, karlistak (badaezpada, bi alderdi: EKA eta CTC), PSN, UPN... UPNA, OPUS... Badira pertsonaia gehiago ere: Jimeno Jurio, Armendariz, Etxenike, Indurain; erlijioan, Lezaunengandik hasita, Sebastianengana, Ordo—ez aitarengandik pasatuz. Lizarbe eta Sanz, Barrena eta Alli. Ramon eta Cajal. Asko dira; agian, kamiseta baino gehiago, maindrea kaleratuko beharko dute. Hori bai, behingoagatik, Iholanda Bartzina trankil utziko dugu, nahikoa dauka daukanarekin.

gure aukerak

MUSIKA

- **Tutera:** SA, Flitter, Fragile eta Prahman taldeek kontzertua emango dute bihar 22:00etan Elola kiroldegian, Segiren Gazte Egunaren kariatara.
- **Erronkari:** Mikel Urdangarinek kiroldegian kantatuko du bihar, 00:30ean.

BERTSOLARIAK

- **Uruña:** Bihar, 20:30ean, bertso afaria egingen dute Xaia ostatuan, Amets Arzallus, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Sustrai Kolina bertsolariekin.
- **Iruñea:** Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Estitxu Arozena, Xabier Silveira, I-igo Olaetxea eta Bittor Elizagoien, ostegunean 20:00etan Gurutze plazako institutuko areto nagusian. Gaijartzaile: Jon Abril.

HITZALDIAK

- **Bidankoze:** Matias Salazarrek *Erronkariko altxunbidea* diapositiba emanaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, udaletxean.
- **Iruñea:** Andoni Egaña bertsolariak bat-bateko bertsoaren sor-kuntza izanen du mintzagai asteartean, 20:00etan, Erraldioen Txokoa.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Kollins Clown taldeak *Arratoitxo maripertxenta* eta *Katu botaduna* haurrentzako antzerki lanak emango ditu gaur Gaiarre antzokian, 17:00etan (gastelaniaz) eta 19:00etan (euskaraz).
- **Erronkari:** Trokolo taldeak *Bigarren printzesa* antzezlan taularatuko du bihar, 18:00etan, kiroldegian.
- **Izaba:** Haurrentzako kale animazioa izanen da igandean plazan, 11:00etatik 13:30era.

ERAKUSKETAK

- **Barañain:** *Suite Olympic Centenal* izeneko erakusketa Antonio Lopez, Txillida eta Tapies bezalako artisten lanak ikusten ahal dira. Bertan olinpiar mugimenduko hainbat esparru islatu dituzte artistek. Hilaren 26a arte izanen da, kultur etxean.
- **Bera:** Euskal Herriko kantagintzaren historia biltzen duen *Kantuketan* erakusketa interaktiboa kultur etxean dago ikusgai, hilaren 28a arte, 16:30etik 20:00etara, astelehenetik larunbatera.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Ines Zudaireren *El hombre, el arte y la naturaleza* margolanen erakusketa Carlos Ciriza galerian izanen da (Kale Berria, 123) hila bukatu arte.
- **Iruñea:** Amaia Aranguren *Figuras II* margolanen erakusketa Ormolu galerian izanen da (Paulino Caballero, 42) hilaren 31a arte.
- **Literatura:** Iruñeko Udaren Egile Berrientzako XVI. Literatur Lehiaketarako lanak hilaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira. Lehiaketak lau sail ditu:

olerkia, narrazio laburra, bertso-paperak eta komikia. Argibideak, 948-222008 telefonoan edo cultura@ayto-pamplona.es helbide elektronikoan.

BESTELAKOAK

- **Ezkaroze:** Bihar Zaraitzuko Gazte Eguna ospatuko dute. Hainbat ekitaldi izanen dira egunean, eta gauean, gaupasa.
- **Lodosa-Sartaguda:** Urriaren 21eko Nafarroa Oinez bestan, laguntzeko, 2.500 lagun behar dituzte. Prest baldin bazaude, deitu 669-552096 telefonora (Joxean).

JOXE LACALLE



Ur tantak

Iragan irailean ohi baino tenperatura hotzagoak eta ohi baino euri gutiago egin zuen Nafarroan. Azken egunetan euria egin zuen arren, Nafarroako urtegien ur edukia %14ko mailaraino jaitsia zen. Eta urri hasieran sekulako ur zaparradak bota ditu, gure ordezkartzako leihotatik eginiko argazkia lekuko. Eskerrak. Nafarroak ura behar zuen. Baina batzuk ez dira kontent. Ez dute urrik nahi. Zera, derragun hobeki: Itoizko lagunak ez dute uretan ito nahi. Ura bai, baina ez Itoitz itotzeko. Eta euren kezka agertzeraz joan ziren Nafarroako Arartekoarengana, Maria Jesus Aranda txit prestuarengana. «Atsekabetuta» atera ziren bileratik, Arandaren ahalmen «mugatu-mugatua» ikusita. Urteetako borrokaren ostean, bide guti gelditzen zaiela dirudi. Ez dute etsiko. Urrik ez zaie faltako.